



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Marcelino Bazterrica Alchu
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera
Carmelo Ayoroa Hualde
Pedro José Alchu Ariztegui

2013ko abenduaren 19an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturrengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkurako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

G.L.M.k idazkia aurkeztu du, lurzoru urbanizaezinean (2 poligonoko 401 partzela) etxebizitza eraikitzeke eman zitzaion lizentzia luzatzeko eskatuz. 2004ko abenduaren 22an eman zitzaion lizentzia, alkatearen ebazpenaren bitartez. Gaia eztabaidatu ondoren, kasuan eman diren gorabeherak kontutan hartuz, aho batez erabaki dute obrak egiteko lizentzia luzatzea eskatzaileari beste urte baterako, 2 poligonoko 401 partzelako etxebizitza bukatu ahal izateko.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

Milagros Erreguerena, Carmelo Ayoroa eta Pedro José Alchu sartu egin dira.

3. 2014KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

2014ko aurrekontua aztertu ondoren, aho batez, erabaki da:

1. Hasierako onespina ematea 2014ko aurrekontuari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Aurrekontuaren laburpena aipatzen da jarraian:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapituluak.	Zuzeneko zergak:	88.730,00
2. Kapituluak.	Zeharkako zergak:	10.000,00
3. Kapituluak.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	30.980,25



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

4. Kapitulua.	Transferentzia arruntak:	155.235,36
5. Kapitulua.	Ondareko dirusarrerak:	21.964,07
7. Kapitulua.	Kapital transferentziak:	2.000,00
	DIRUSARRERAK GUZTIRA:	308.909,68

GASTUAK:		EUROAK
1. Kapitulua.	Langileen lansariak:	61.404,28
2. Kapitulua.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	92.115,40
3. Kapitulua.	Finantza-gastuak:	3.160,00
4. Kapitulua.	Transferentzia arruntak:	120.855,00
6. Kapitulua.	Inbertsio errealak:	23.550,00
7. Kapitulua.	Kapital transferentziak:	2.825,00
9. Kapitulua.	Finantza-pasiboak:	5.000,00
	GASTUAK GUZTIRA:	308.909,68

Gero, 2014ko plantilla organikoa aztertu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236 eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez, erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea 2014ko plantilla organikoari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

2. Kontu hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 1. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), lau kurtso gainditurik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats gainditurik Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan. Egoera: jardunean.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Lan-kontratudun finkoak

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

Langileen izenen zerrenda

Idazkaria: hutsik.

Kontu hartzailea: hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea: Oinatz Asensio Santesteban. Maila: D. 2. gradua. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Antzinasuna: 2004/06/26.

Administrari laguntzailea: hutsik.

4. 2014KO ZERGA-TASAK, TASAK ETA PREZIOAK.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Honako zerga-tasa hauek onestea 2014. urterako:

-Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,291, katastroko balore berri garbien gainean.

-Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,678, katastroko balore berri garbien gainean.

-Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga: %3a mantentzea, obraren egiazko kostu osoaren gainean (obra gauzatzeko aurrekontuarena).

-Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga. Beren horretan mantentzen dira indarrean dauden indizeak eta tasak.

2. Uraren saneamendu eta banaketaren eta zerbitzuaren tasak, Iturengo Udalak emandakoak: Ordenantza fiskal arauemailearen eranskinean zehazten diren zenbatekoak mantentzea 2014. urterako.

3. 2014. urterako mantentzea auzolanetik libratzeko ordainaren zenbatekoa: diruz ordaindu beharko da, alegia, 30,00 euro auzolan bakoitzeko.

4. Hirigintzako tramitazioak eta beste tramitazio batzuk egiteko tasak: Ordenantza fiskal arauemailearen eranskinean zehazten diren zenbatekoak mantentzea 2014. urterako.

5. Erabaki honek 2014ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta indarra izaten jarraituko du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

6. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

5. ORDEZKO BAKE EPAILEA.

Udalak bake epaile ordezkoren kargua hutsik dagoela iragarri zuen, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren (Estatuko Aldizkari Ofiziala, uztailaren 2koa) 101. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat, baita Bake Epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren (Estatuko Aldizkari Ofizialean, 1995eko uztailaren 13koa) 5, 6 eta 7. artikuluetan ezarriarekin bat ere.

Iragarkia 2013ko azaroaren 14ko. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (220. aldizkaria), eta ez da interesdunik aurkeztu.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren, eta aipatutako araudian xedatutakoari jarraituz, ahobatez –arazko quoruma- erabaki da:

1. F.F.O. hautatzea Ordezko Bake Epaile bezala.
2. Erabaki hau jakinaraztea interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiari.

6. ZENBAIT ESKAERA.

1. J.A.I.U.k aurkeztu zuen idatzia irakurri du idazkariak. Erantzuna ematen dio bertan, 2013ko azaroaren 7ko Osoko Bilkuran Udalak hartutako erabakiari, *Landako bidean* jarritako egurra kentzeko agindua eman ziona. Idatzian adierazten du egurra bere jabetzako eremuan dagoela eta eskatzen du A.M.ri jakinaraztea Udalak ezin duela jabetza pribatuen arteko aferak konpondu. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da azaroaren 7ko erabakia berrestea, eta I. jaunari egurra kentzea eskatzea berriz, lursailaren jabetzaren gaia konpondu arte behintzat.

2. Iturengo Udalak mozio hau aurkezten du, Nafarroan D ereduan ari diren irakasleei gure babesa eta estimua agertzeko.

Nafarroako Gobernuaren zentzugabekeria berri bat: D ereduan ari diren irakasleen kriminalizazioa.

Justuki Nafarroa osoan D eredia aldarrikatzen ari den honetan eta matrikulazioak goranzko joera duelarik, Nafarroako Gobernua, bere lehendakaria buru duela, Guardia Zibilaren ustezko txosten bat hartuta, adierazpen iraingarriak egin ditu, D ereduko irakasleen izen ona desprestigiatzeko. Aipatu gainera D modelo honetan bakarrik ikasten ahal direla ziurtasunez Nafarroan dauden bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania.

Erabat baztertzen dugu komunikabide batzuk hartu duten intoxikazioaren bidea, interesatuak bai dira gaur egun pil pilean dauden gaiak estaltzeko, jakitera; LOMCE ren inposaketa, Hezkuntza departamenduaren murrizketak, sexu bereizketa indarrean daukaten zentruak eta hauekin dituzten konbenioen defentsa, (gehienak Opus Deikoak), etabar.

Oroitarazi nahi dugu Hezkuntza Departamenduko ikuskaritza sailari dagokiola zerbitzu ona emateko ardura eta ez zaiola inoiz irakasle bateri inolako expedienterik ireki doktrinamendu saiakerarengatik eta ez dagola ere bakar bat ere martxan.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mahai gainean jartzea irakasleak gainbegiratu behar direla, beraien lan pedagogikoa egiterakoan, aberrazio juridiko eta moral bat da.

Hezkuntza komunitate oso bateri egiten zaion eraso da eta sorgin eraso honek 1936 -ko maisuen zerrenda beltzetara garamatza.

Honengatik Udaletxe honek:

1 Bere errekonozimendua eta babeserakusten dio D ereduko irakaslegoari eta irmoki baztertzen du edozein kriminalizazio saiakera.

2. Salatzen du Barcinaren Gobernuak manipulazioa bere inguruko komunikabideen laguntzarekin.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta hedabideei bidaltzea adosten du.

3. Aho batez erabaki da plubiometroa jartzeko baimena ematea Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuari. Plubiometroa 5 poligonoko 39 partzelan jarriko da, behin-behineko.

Jagoba Manterola sartu da.

4. Aurtizko bestak antolatzeko diru-laguntza eskatu zuen O.M.k eta bestako kontuak aurkezteko eskatu zitzaion, laguntzako diru-kopurua erabaki ahal izateko. Aurkeztutako agiria aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

- 3.300 euroko diru-laguntza onestea Aurtizko bestetarako.

- Bestak antolatzen dituen batzordeak kontuan hartu beharko du, Udalaren diru-laguntza murriztuko dela 2014 urtean, eta merkeago egin beharko dituztela bestak. Iturengo bestako gastua murriztu egingo da ere.

5. Aho batez erabaki da, 250 euroko diru-laguntza ematea Saharaztan Elkarteari, *Oporrak Bakean* proiekturako.

6. Aho batez erabaki da Foruzaingoak bidali duen salaketaren berri ematea A.A.A.ri, berak jakin dezan.

7. J.C.E.A.k aurkeztu zuen idatzia irakurri du idazkariak. Herriko Ostaturako kontratuko 5. puntuak dio, Kontseilu karrakako 38an dagoen etxebizitzari ematen ahal zaion erabilera bat dela adjudikazio-hartzailea bertan bizitzeko. Baldintza hori aldatzea eskatzen du, adjudikazio-hartzailearen eta Ostaturako langileen etxebizitzarako erabili ahal izateko. Aho batez onetsi da puntu horren aldaketa.

Mikel Gerekak azaldu du J.C.E.k egin dion proposamena ingeleseko gelarako eta proposamena aztertzea erabaki da.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

8. Idazkariak irakurri du Iruñako instrukzioko 5. epaitegiko idazkia, *Armaxeko maldan* izandako suteari buruzkoa. Sutea komunalean izan zenez, egintzak eskaini dira. Udalbatzaren ustez ez dago kalterik eta jakinaren gainean geratu da.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen honen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2013ko azaroaren 22koa, P.M.E.k jarri zuen gora jotzeko errekurtsioan (13-04090 zenbakia), espedientean interesa dutenei dei egitea erabaki zuena.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen esplotazioen erregistroan izandako mugimenduak —V.M.ren baja; A.G.ren baja—; mediku-kontsultategiaren funtzionamendu baimena; Kantauriko Ur-Konfederazioaren Ebazpena, 2013ko azaroaren 5koa, E.A.ri baimena eman ziona etxebizitza handitzeko 1 poligonoko 202 partzelan; Ondare Arkitektonikoko Sailaren aldeko txostena, larrialdietako irteera irekitzeko Herriko Ostatuan; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.M.F. eta J.M.S.k—; Aurtizko Ostaturako erositako ontzi-garbigailuak; Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaia, Vodafone España, SAK jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioan; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; suhiltzaileekin egindako bilera; Kantauriko Ur-Konfederazioaren idatzia, uholde arriskuko mapei buruz.

2. Aho batez erabaki da hitzarmena sinatzea Trafiko Buruzagitzarekin, informazioa trukatu eta elkarlanean aritzeko.

3. Jagoba Manterolak hitza hartu du eta esan du irakasleek segurtasun neurriak hartu beharko dituztela eskolan (ordenagailuak itzalita eta gelak giltzatuak utzi), gero arazoak ez izateko. Mikel Gerekak esan du neurri horiek hartzen direla normalean.

9. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.